

RAFAEL PAREDES,
ETORKIN ELKARTEKO ABOKATUA

«Etorkina egun lehiakide da, eta talka dator, xenofobiaren arriskua»

Iruñeko Jarauta karrikako etxabe ilun eta mehar batean du egoitza Etorkinek, beste herrialdeetatik etorritako herritarrei lege-aholkularitza ematen dien elkarteak. Rafael Paredes bertako abokatuaren esanetan “etorkinak lan egiteko irrikaz daude”.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |



KOLDO AZKUNE

DIRU SARRERA eskaseko etorkinak, justiziaren gastuak ordaintzeko modurik ez dutenak, hartzen dituzte Iruñeko Etorkinen bulegoan. 27.000 bisita baino gehiago jaso dituzte 2009an lanean hasi

zirenetik. Lantaldean liberatu bakarra dago, Rafael Paredes abokatua, eta psikologo baten eta zenbait boluntarioen laguntza jasotzen dute. Bertara jotzen duen nornahiri zabaltzen dizkiote ateak,

nongoa den edo ze izena duen galdetu beharrik gabe. Etorkinen sufrikario eta pozen testigantza zuzena jasotzen dute Etorkinen, aurreiritzi eta estereotipoak alboan utzita.

Gasteizko alkateak agertu du etorkin batzuei, magrebtarrei kasu, oinarriko errenta jasotzeko baldintzak gogortu behar zaizkiela, laguntzei esker bizi nahi omen dutelako.

Ez dugu adierazpen hauetara aurre egiten asmatu. Edo administrazioak ez du bere lana taxuz egiten, edo alkatatea gezurretan ari da. Magrebtarrak eta beltzak laguntza horiek kobratzeko kinkan badaude, kobratu ditzatela. Eta gabeziak Gasteizko batek baldin baditu, edo Laguardiako beste batek, jaso ditzala eta kito. Baldintzak betetzen dituztela? Laguntza merezi dute. Adierazpenok asmo txarrez egiten ditu, botoak irabazi nahi dituelako. Zerbitzu hauengatik ere gizarte-norgehiagoka baitago. Bertakook ere gizarte-laguntzen premia dugu, eta alkateak esaten digu beste horiek kentzen dizkigutela. Etorkina, egun, lehiakide bat da. Mahats bilketan, adibide bat jartzearen, lehen ez bezala hemengo jendearekin elkartzen dira, eta talka dator, xenofobiaren arriskua.

Eta iruzurrik balego?

Nafarroan ere Iñigo Allí kontseilariak iruzurra zegoela esan zuen. Ondorengo ikerketek %0,7ko iruzur eskasa erakutsi zuten. Salaketa hauekin baliabide gutxiko jendearen botoa lortu nahi dute. Nondik ateratzen ditu botoak Le Penek Frantzia? Gure buruzagi hauek ez dira ohartzen suarekin jolasten ari direla. Arabako Diputazioko presidentea eta Gasteizko alkatea arduragabe hutsak dira.

Etorkinek osasun zerbitzuak ere behar baino gehiago erabiltzen dituztela esan ohi du zenbaitek.

Hori faltsua da. Gehienetan gizon eta emakume gazteak direnez, osasun-zerbitzuak gutxien erabiltzen dituzten hiritarrak dira. Are gehiago, Espainiako Gobernuak, paperik ez edukitzeagatik edo lanik gabe egoteagatik, doako osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea kendu die. Eta hau erloju-bonba bat da. Administrazioak ez ditu kontrolatzen hemen ezagutzen ez ditugun gaitzekin jotako jendea, gaitz tropikalekin gehienak, ebola kasu. Ez al da sen onekoa guzti hori kontrol-

pean izatea? EAEko eta Nafarroako ospitaleetan, behinik behin, oraindik artatzen dituzte.

Gurea bezalako krisi egoera batean zein da oinarriko errentaren garrantzia?

Funtsezkoa da. Nafarroan murriztu eta murriztu ari dira. 2012 urtera arte errenta nahiko duina genuen: ez zituzten pertsonak egoera administratiboengatik bereizten, eta urtebetez hemen bizi izatearekin aski zuten. UPN eta PSNren koalizio gobernarekin, Elena Torres sozialista Ongizate Departamentuko burua zela, murrizketak hasi ziren: bi urteko erresidentzia, paperik gabekoen bazterketa... Lotsatzeko modukoa bada ere, sozialistak joatearekin batera arindu zituzten baldintzetako batzuk. Orain, adin txikikoen ardura bere gain duten familiek laguntza jaso dezakete, paperak eduki ala ez. 2012ko egoerara bueltatu beharko ginateke, gutxienez.

“UPN eta PSNren koalizio gobernarekin murrizketak hasi ziren: bi urteko erresidentzia, paperik gabekoen bazterketa... Lotsatzeko modukoa bada ere, sozialistak joatearekin batera arindu zituzten baldintzetako batzuk”

Saharaz hegoaldeko etorkinen egoera zuzenean ikusteko aukera duzue. Nolakoa da?

Immigrazioa arras fenomeno konplexua da, eta anitza. Txinatarren edo pakistandarren immigrazioa ez da berdina. Hegoamerikarrak, jeneralean, abioiez etorri ziren; Saharaz hegoaldekoak, txalupaz edo Melillako hesitik gora salto eginez, basamortu erdia baino gehiago oinez edo ahal izan duten moduan gurutzatu eta gero. Latinoak klase ertainekoak ziren batik bat, hona etortzeko 5.000 dolar inguru bildu behar zituzten, eta Bolivia bezalako herrialdeetan

hilean 200 euro jasotzen dituzte batez beste. Zeinek ordaindu zezakeen, bada, bidaia? Txiroenek ez. Ghana, Mali, Liberia, Kamerun edo Senegaleko etorkinak, berriz, pobre-pobreak dira, sorterrian utzi duten familia diruz laguntzeko zamarekin datozenak. Eta afrikarrentzat familia ez da aita-ama eta seme-alabak. Han familiaren kontzeptua askoz zabalagoa da.

Saharaz hegoaldeko etorkinez solas egiterakoan mafiak aipatzen dira. Mafiak dira penintsularaino hurbiltzen dituztenak, mafiak dira karriketan saltzen dituzten produktuen giblean ezkutatzen direnak...

Inondik inora. Uste baino mafia gutxiago dago. Han uzten dituzten senideengatik datoz hona. Euren herrialdeak nola dauden ikusi besterik ez dago: Niger, Mauritania, Ghana, Kamerun, Ginea Conakry, Mali. Familiengatik euren buruak arriskuan jartzen dituzte. Niri kontatu didate nola, udan bertan, Ozeano Atlantikoan, txalupan lagunak hotzaren hotzez hiltzen ikusi dituzten. Eta itsasora jaurtitzen zituzten gorpuak, txalupan leku gehiago izateko. Pateretako jabeek 100-200 euro edo kobratzen dizkiete, baina beraiek familiak laguntzeko etortzen dira.

Gurera iritsita, Europarekin zituzten aurreikuspenak betetzen zaizkie?

Ez, ez dira betetzen. Baina paperak lortzeko sei urtez zain ibili zen Senegaleko etorkin batek esan zidana errepikatuko dizut: “Rafa, ni hemendik ez noa. Belarra jango dut gutxienez, baina ez noa”. Saharaz hegoaldekoak ez datoz, orokorrean, diru apur bat biltzera edo bizitza-proiektu bat aurrera ateratzera, espainolek atzerrian, Alemanian edo Frantzian, egiten zuten moduan. Bizitza arriskuan jarri dute hona etortzeko. Nola itzuliko dira zer jateko ez duten leku batera? Ez dauka zentzurik. Beren ilusioa sorterrira abioiez joatea da, oporretan, senide guztientzako opariak daramatzatela. Ez doaz bertan gelditzera. Familiaren diru-sarrerara nagusia dira. Afrikan ez dago Gizarte Segurantzarik, ezta antzekorik ere.

Eta zein da gutaz duten irudia?

Niri esaten didate euskaldunak beza-lakorik ez dagoela. Eta ahalko balute denak gurera etorriko liratekeela. Hotzak, hori bai, atzera eginarazten die. Telebistatik beltzen oso irudi negatiboa igortzen digute. Melillako hesira igotzen diren 40 gizonak gu inbaditzera datozela dirudi. Eta azken 10 urtetan 30.000 inguru sartu dira bakarrik. Krisia baino lehen, Boliviatik, egunero 3-4 abioi iristen ziren, topera beteta. Ekuadorreko milioi bat etorkin izan ditugu, Errumaniatik beste milioi bat, 400.000 boliviarrak... Eta lau beltz datoz eta ez dago beraientzat lekurik?

Administrazioarentzat etorkin onak eta gaiztoak daude?

Noski baietz. Gaiztoak laguntzak eskatzen dituztenak dira. Eta, benetan esaten dizut, lan egiteko irrikaz daude. Atzo oinarritzko errenta jasotzen duen afrikar bat etorri zen bulegora. Pozez gainezka zegoen, aldi baterako lanerako enpresa batek hilabeteko kontratua egin ziolako. Loteria tokatu izan balitzaio bezala sentitzen zen. Nahiago dute, mila bider, lan egitea laguntzak jasotzea baino. Egia da batzuetan magrebtarrekin talka ematen dela. Eta egia da ere beraiek ere pittin bat ireki beharko liratekeela, ezjakintasunak mesfidantzari bide ematen diolako. Gasteizko alkatea ez da tentela, eta badaki nora apuntatu, gizartean magrebtarren aurkako jarrerak baitaude.

“Bizitza arriskuan jarri dute hona etortzeko. Nola itzuliko dira zer jateko ez duten leku batera? Ez dauka zentzurik”

Azkenaldian, Caritasek txosten bat karrikaratzen duenean, ematen du talde iraultzaile batek atera duela.

Caritasek betidanik esan duena errepikatzen du: pobreen kopurua zein den, pobreziaaren ezaugarriak zeintzuk diren, zer egin daitekeen pobrezia aurre egiteko, nola eman diezaiekegun duintasun apur bat

NAVARRA.ES



“Iñigo Allí kontseilariak iruzurra zegoela esan zuen. Ondorengo ikerketek %0,7ko iruzur eskasa erakutsi zuten”. Irudian, Nafarroako Gobernuako Politika Sozialen kontseilaria bere departamenduaren aurrekontuen inguruko prentsaurreko batean.

pobreenei... Baina noski, egunez egun geroz eta murrizketa gehiago baldin badaude, eta behar gorrian dagoen jendeak murrizketak pairatzen jarraitzen baldin badu, Caritasen zenbakiak ez dira boterearen gustuko izanen. Nola iritsi gara egungo egoerara? Nola pasatu gara 4 milioi pobre izatetik 8-10 milioi pobre izatera? Tristeia da Caritas iraultzailetzat jotzea neguan etxetan elektrizitatea ez mozteko eskatzeagatik. Gure gizartean bertan oso ongi bizi diren hiritarrak daude, hilero 2.000-3.000 euro poltsikoratzen dituztenak, eta gogaikarria egiten zaie ikastetxera doazen haurren %25 gosaldutxo gabe doala jakitea. Diskurtso ofiziala hausten duten berrien arduradunak errudun bilakatzen dira.

Etorkinak beharrezkoak dira gure bizitza-kalitateari eusteko?

Nork zaindu behar ditu gure aitona-amonak? Nork garbitu behar ditu gure etxeak? Etxeko lanetan diharduten Latinoamerikako emakume asko oso gaizki pasatzen ari dira. Modu lotsagarrian esplotatzen dituzte. Komunikabideetan, berriz, “Neskame batek atso baten

bitxiak lapurtu ditu” bezalako titularrak agertzen dira, eta amaierarik gabeko lanorduak, jasan behar dituzten irainak, soldata irigarriak isiltzen dituzte. Hemen kasu asko hartu izan ditugu. Eta burua makurtu beharrean izaten dira euren sorterrian seme-alabak utzi dituztelako, aitona-amonen edo senideen esku, eta aitzak bere eginkizunei muzin egin dielako. Emakumeen artean egoera oso larria da, gizonena baino gaitzagoa, eta inork ez dio horri erreparatzen. ■

